

giri hau sinatzen duten alderdi politikoek, indarrean dagoen legeriaren babesean, ondoko transakzio akordioa adostu dute:

TRANSAKZIO AKORDIOA

1.ko Udalak adierazi du herritar guztiek izan behar dutela finantza-zerbitzuetarako sarbidea, eta ezin dela egon irisgarritasuna eta aurrez aurreko arreta zailtzen edo eragozten duen arrazoirik, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenei.
2.ko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio finantza-erakundeekin hitz egin dezala, herritarrak oro har finantzen arloaren barnean sartzeko, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketen pertsonen kolektiboari.
3.ko Udalak finantza-erakundeei eskatu die, elkarriketa eta azterketa prozesu honetan, finantza-erakunde horiek konpromiso hauek har ditzaten:
 - Kolektibo horien (hau da, adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketen) premia bereziak kontuan hartzea, eta aipatutako kolektiboek administrazio publiko honetan egiten dituzten izapideetan izan ditzaketen arazoak aztertzea, eta kontuan izan dituzten premia bereziak zerbitzuak ematerakoan.
 - Herritarrak oro har finantzen arloaren barnean sartzeko, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketen pertsonen kolektiboari, eta berezikiondokoei erreparatuz:
 - Kolektibo horri arreta hurbila eta azkarra ematea, kolektibo horri arreta ematea lehenetsiz, arreta pertsonalizatuagoa emanez, eta telefono bidezko arreta ere indartuz.
 - Kutxaren ordutegia zabaltzea, bezeroen kontu korranteetan diru-sarrerak edo diru-ateratzeak egiteko ordu-murrizketak edo zenbatekoak saihesteko. Zerbitzu horiek oinarritzko kutxa-zerbitzuaren barruan daude, eta zerbitzu hori ematea ez du esan nahi komisioak kobratu behar direnik, Espainiako Bankuaren jardunbide egokien irizpideari jarraikiz; izan ere, irizpide horren arabera, erakundeek

Los grupos políticos municipales abajo firmantes, al amparo de la legislación vigente, adoptan el siguiente acuerdo de transacción:

ACUERDO DE TRANSACCIÓN

1. El Ayuntamiento de..... manifiesta que toda la ciudadanía debe poder disponer de acceso a los servicios financieros, sin que puedan existir motivos que dificulten o impidan la accesibilidad y la atención de una forma presencial, con especial atención a las personas mayores y aquellas que puedan tener dificultades especiales.
2. El Ayuntamiento de insta al Gobierno Vasco a que dialogue con las instituciones financieras para poner en marcha nuevas medidas que garanticen la inclusión financiera de la ciudadanía en general, y con especial atención a este colectivo de personas mayores y aquellas que puedan tener dificultades especiales,
3. El Ayuntamiento de.....insta a las instituciones financieras para que, en este proceso de dialogo y análisis, estas instituciones financieras se comprometan a:
 - Tener en cuenta las necesidades especiales de estos colectivos (i.e. personas mayores y aquellas que puedan tener dificultades especiales) y revisar las dificultades que los citados colectivos puedan tener en los trámites que realizan en esta administración pública y a tener en cuenta sus necesidades especiales en la prestación de los servicios.
 - Poner en marcha nuevas medidas que garanticen la inclusión financiera de la ciudadanía en general y con especial atención a este colectivo de personas mayores y aquellas que puedan tener dificultades especiales; y, en particular a:
 - Facilitar a este colectivo una atención cercana y rápida, priorizando la atención a este colectivo, dotándoles de una atención más personalizada y reforzando también la atención telefónica.
 - Ampliar el horario de caja para evitar restricciones horarias o de importe para la realización de ingresos o reintegros en las cuentas corrientes de las y los clientes, servicios incluidos dentro del servicio de caja básico sin que esto suponga el cobro de comisiones atendiendo al criterio de buenas prácticas del Banco de España, según el cual las entidades deben poner a disposición de sus clientes al

bezeroen eskura jarri behar dute, gutxienez, doako bitarteko bat, irisgarria eta segurua, beren kontutik eskudirua atera ahal izateko, kontuan hartuta kolektibo bakoitzaren inguruabar bereziak.

- Kutzazain automatikoak dauden aztertu eta horiek bermatzea biztanle kopuruari erreparatuta, eta bulegorik ez dagoenean, bankuek eraikin publiko eta irisgarrietan jarri eta artatu ditzatela.
 - Aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Finantzen Euskal Institutuarekin batera, udalerrri horietan eta banku-bulegorik ez dagoen landa-eremuetan, kutxazain automatikoak jartzeko laguntza eta finantzaketa neurriak.
 - Banku-bulegorik eta kutxazain automatikorik ez dagoen eremuetan, eskudirua sartu edo ateratzeko ohiko banku-zerbitzuak ematen dituzten autobusen edo bulego mugikorren maiztasun erregular eta egonkorra bermatzea.
 - Kolektibo horrentzat bereziki eskaintzen dituzten zerbitzuak edo produktuak lortzeko sistema digitalak edo makinak erabili behar izatea gutxitu, eta, horretarako, gaitasun digitalak eskuratzeko kanpaina bat bizkortzea eta bultzatzea, behar diren ezagutzak eta tresnak ez izateagatik oinarriko zerbitzuak eskuratu ezin dituzten pertsonen bazterkeria hori jasan ez dezaten, eta banku lagunkoia lortzeko prestakuntza-ekintzak indartzea.
 - 2021eko uztailaren 21ean sinatutako bankaren konpromiso sozial eta jasangarria indartzeko protokolo estrategikoan lanean jarraitzea, finantza-inklusioa eta digitalizazioa sustatzeko.
4. Era berean,.....ko Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen die beren eskumeneko zerbitzu guztietan aurrez aurreko arreta emateko, beharra duten pertsonen, bereziki kolektibo honetako pertsonen, beren eskaeren kudeaketan sortzen zaizkien arazoen erantzuna eman ahal izateko.

menos un medio gratuito, accesible y seguro, teniendo en cuenta las circunstancias particulares de cada colectivo para que puedan disponer de efectivo de su cuenta.

- Estudiar y garantizar la existencia de cajeros automáticos atendiendo al número de habitantes que, en ausencia de oficinas, se instalen y atiendan por los bancos en edificios públicos y accesibles.
 - Analizar, junto con el Gobierno Vasco y desde el Instituto Vasco de Finanzas, medidas de apoyo y financiación para la instalación de cajeros automáticos en estos municipios y en las zonas rurales donde no se cuenta con presencia de oficinas bancarias.
 - Garantizar una frecuencia regular y estable para los autobuses u oficinas móviles que prestan los servicios bancarios habituales de ingresos y retirada de efectivo en zonas donde no existen oficinas bancarias ni cajeros automáticos
 - Tratar de reducir la obligatoriedad de utilizar sistemas digitales o máquinas para acceder a los servicios o productos que ofrecen para ese colectivo en particular, y para ello acelerar e impulsar una campaña de acceso a competencias digitales para evitar que las personas que no pueden acceder a servicios básicos por no disponer de los conocimientos ni instrumentos necesarios sufran esta exclusión, y reforzar acciones formativas para conseguir una banca amigable.
 - Seguir trabajando dentro del protocolo estratégico para reforzar el compromiso social y sostenible de la banca formalizado el 21 de julio de 2021, en aras a fomentar la inclusión financiera y la digitalización.
4. Del mismo modo, el Ayuntamiento de insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa a tratar de facilitar en cada servicio de su competencia la atención presencial para que las personas que lo necesitan, en particular, a las personas de este colectivo, puedan obtener respuesta a los problemas que les surjan en la gestión de sus demandas.

5.ko Udalak merkataritza eta ostalaritza establezimenduak gonbidatzen ditu adinekoekin eta zailtasun bereziak dituztenekin lagunkoiak izatea errazteko neurriak abian jartzera, hala nola irekitzen errazak diren ateak, heldulekuak sarreran, itxaroteko eserlekuak, poltsa eta paketeetarako euskarriak, aldagela erosoak eta irisgarriak, letra argi eta handiko kartelak, informazio irisgarria, etab. Horretarako, Udalak sensibilizazio eta informazio kanpaina bat egingo du, adinekoei eta zailtasun bereziak dituzten pertsonen arreta emateko jardunbide egokiei buruz.

.....ko Udalak Osoko Bilkuraren erabaki hauek helaraziko dizkie herriko merkataritza eta zerbitzu establezimenduei, etako herritarrek joan behar izaten duten bestelako zerbitzu publikoei.

5. El Ayuntamiento de invita a los establecimientos comerciales y de hostelería a poner en práctica medidas que faciliten su amigabilidad con las personas mayores y personas con dificultades especiales, tales como puertas fáciles de abrir, asideros a la entrada, asientos para la espera, apoyos para las bolsas y paquetes, probadores cómodos y accesibles, carteles con letra clara y grande, información accesible, etc. Para ello, el Ayuntamiento realizará una campaña de sensibilización e información sobre buenas prácticas en la atención a las personas mayores y personas con dificultades especiales.

El Ayuntamiento de..... hará llegar estos acuerdos plenarios a las entidades comerciales y de servicios con presencia en el municipio y otros servicios públicos a los que tengan que acudir las personas de